



**Estibalitz
Gonzalez**

**Euskal
Biruseko
kidea**

Argitu beharrekoak

San Martin Azokan taloekin sortutako iskanbila bat dugu gaurkoan hizpide.


Bertaratu zinetenok jakinean izango duzue "SUTURNO" pantaila elektronikoko bat egon zela martxan, ilara luzeak saihesteko. Ticket-banatzailerak esanda zuten ticket bakoitzeko 5 talo baino gehiago ezin zutela eman. Banatzaile txanda bat, bigarren txanda eta ondo, pantailan zenbakiak erritmo onarekin zihozten igotzen. Baina ticketen txosnan hiru garren banatzaile txanda sartu zenean, ahaztu eta ez zitzaizaien aipatu 5 taloen mugarena. Eskatu beste ematen hasi ziren: 8-13-7-3-16... Hauen jabeak taloa hartzera iritsi zirenean, pantailaren erritmoa batera-batera moteldu egin zen. Talo-emailek eskatutako talo kopurua luzatzen zuten, eta jo eta ke

burua altxatzeko asti barik ziharduten 34 talogilek, ezin zuten demanda izugarri hura asetu. Bost talo baino gehiago ematen zituztela ikustean, horrelakoetarako denok barruan daramagun pikaro tranpatia atera zuten pasiora askok eta askok, ilaran zeuden ezagunei talo-txartelak emanez. Txandaren zain finfin zeuden herritar pazienteak, inpazientatu eta akabo! Erneguak, kexak, haserreak...

Gertatutakoa gertatuta, argitu beharrean gaude urteroko gure erronkarik haundiena taloen banaketaren hobe-kuntza dela, baina toldopeko

espazioak bere mugak ditu eta talogileek gehiengoak eman arren ere, gainezka egiten du eskabideak. Hausnartu ostean, gure balorazioak kontrastatzen ditugu, hanka sartzeekin urtero ikasiz. Eta justu horregatik, gu geu garelako gure kritikorik zorrotzenak, oso mingarriak egin zaizkigu "¡vaya organización de mierda!" eta honen estiloko modu txarrean eta garraxika esandako beste irain batzuk. "Organización de mierda" hau 183 pertsonen lanaren koordinazioaz arduratzen da, ostalaritza ikasi ez duen borondate oneko lagun aldra itzela, helburu bakarrak batuta: ERMUARREI ZEIN KANPOTIK DATOZENEI JAI ERRALDOI BAT ESKAINTZEA. Zelan hobetu bururatzeko zaizula? Esan diezaguzu. Jaiaren parte zarenez gero, zuri ere badagokizu.

**"183 lagun
koordinatzen
dira azokan"**



IKASTOLA
33 urte Ermua
euskalduntzen



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko


**Euskalduna izatea
pekatua bada...**

Zatoz!



Kardenal Orbe plaza
943 17 45 84

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINTZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA